



SAISON CULTURELLE

Kultur denboraldia

Théâtre | Musique | Cirque | Danza

Honako ikuskizun honekin lotu formakuntza: Oihana (EUS)

Eskuhartzaileak:

- Maryse Urruty/ Zuzendaria eta Jokalaria/ Itzuli konpainia
- Joana Olasagasti/ Dantzaria/ Itzuli konpainia

Formakuntza egun oso batean luzatuko da eta bikote batek emanen du dantza eta antzerkiaren bidezko transmisioaren gaiari buruz.

Itzuli konpainiaren Oihana izeneko azken sorkuntzan, dantza hizkuntza baten gisa da ikusia. Pertsonaietako batek dantzaren bidez baizik ez du bere burua adierazten eta bere ezagutzak transmititzera entseatzen da. Formakuntza horretan, gorputza transmisio tresna bezala lantzen dugu.

Antzerki eta dantza ariketa horiei esker, mugimendutik abiatuko gara mugimendua gure inprobisazioen abiapuntutzat hartuz. Ikerketa lan horretatik abiatuz, agerraldiak eraikitzeko balioko duten egoerak hautatuko ditugu, hasiera batean agerraldi inprobisatuak direnak eta gero taldearen ondorioei esker garatuak. Ikastaldi osoan zehar, parte hartzaileak aldi berean jokalaria eta zuzendari izanen dira eta ikasgelan antzerki inprobisazio lanari ekiteko metodologia ezagutzera helduko dira.

2022ko urtarrilaren 5ean, asteazkenarekin
9:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 17:00etara
Harri Xuri aretoan - (errepide nagusia - 64250 Luhuso)